

‘Ongi Etorri, gazte!’ egitasmoak euskarara eta euskal kulturara gerturatuko ditu gaztetxoak beste ikasturte batez

- **Azaroarekin batera jarriko da martxan egitasmoa, eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko gazteek hartu ahal izango dute parte**
- **Haur eta nerabeek dinamika eta jolas ezberdinen bitartez, euskara eta gure kultura ezagutzeko aukera izango dute**

Andoainen, 24-10-30.- Ikasturte berri bati ekingo dio azaroko hilabetea hastearrekin batera ‘Ongi Etorri, gazte!’ egitasmoak. Badira honezkero hainbat ikasturte martxan dela, eta urtez urte, parte hartzen duten gazteei euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko helburua erdiesteko asmo du.

Gure herrira etorri berriak diren edo denbora gutxi daramaten haur eta nerabeek hartu ohi dute parte, eta saio gidatuen bitartez, gure herriko ezaugarrietan busti, eta aldi berean, euren jatorriko herrialdeen ezaugarriak ezagutu ohi dira. Izan ere, kultur-artekotasuna eta aniztasuna dira egitasmo honen zehar-lerroak.

Saioak doakoak izango dira, eta azaroan hasi eta maiatzera bitarte luzatuko dira. LH 5 eta 6ko haurren kasuan, astelehenetan elkartuko dira, 16:45etatik 18:45etara. DBHko nerabeen kasuan, berriz, asteartetan, 17:00etatik 19:00tara. Saio guztiak Gazte lokalean izango dira.

Egitasmoen izen-ematea ikastetxeen bitartez bideratu den arren, izen-emateko aukera ere badago helbide elektronikoa honetara idatziz: ongietorrigazte@gmail.com.